


ARRASATE

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 30a / 563. zenbakia

Bihotza zaintzeak eguneroko bizitzan duen garrantziaz mintzatuko dira Bihotzaren Astean



Taupadaz taupada bizi

ORAIN ETA HEMEN: EUSKARA OSASUNGINTZAN/8 • KIROLA: LAU T'ERDIKO FINALERDIA BIHAR/11

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18-behea, ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1. ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- HONORIO IZQUIERDO. Mendia Jauregia. Erdiko kale, 22 ☎ 943 79 72 16

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Móbila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22


KALEINKESTA/ Ze deitxozu bikote homosexual eta heterosexualek eskubide berak eukittiari?



PABLO RIVIERE
Langillie



ZIORTZA URIBELARREA
Langillie



MIKEL RIVAS
Ikaslie



ROSA URZELAI
Langillie



JUAN MARI OREGI
Jubilae



AMAIA ABUITI
Langillie

Eskubide berak euki biherko leukie. Elixatik ezkondu gure badaue, ba elixatik, eta epaitegittik gure badaue, hori be bai. Mundu danak dauko horretarako eskubidie.

Eskubide danak euki biherko leukie, bestion moduen. Jakiña, elixatik ezkonketie Elixiaren beraren esku egongo da, baiñe, behintzet, aukerie danok euki biherko leukie, nire ustez.

Umiek adoptau gure badaue, ezkondu gure badaue, edo ondasunak euki ezkerro, zeozer pasaute, bestion moduen konpondu gure badaue, esku bidie euki biherko leukie.

Nik pentsetan dot baietz, eskubide danak euki biherko leukie. Danok gara berdiñak, hortaz, zergatik ez? Umiek adoptau, ezkondu, gure dauena, bestion moduan.

Nik uste dot baietz. Udaletxien ezkonketako aukerie euki biherko leukie. Elixiak, barriz, pentseton dot ezetz esango dauela. Eta umiek adoptau, barriz, bestion moduen.

Bai, argi eta garbi. Uste dot gaur egun diskriminatu egi-tten dittuela. Edozelan be, ez dot uste ezkontza dala azken lorpena, ez homosexualen ezta heterosexualen artien be.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK OSASUN ZERBITZUAK EUSKALDUNTZEKO EKIMENA
UEMA, ELA, LAB eta OEE (Osasungintza Euskalduntzeko Erakundea) buru-belarri dabilta osasun etxeetan euskara normalizatzeko plan estrategikoaren kanpainarekin. Postal eta kartelak eskuragai daude, eta gura duenak ambulatorioan edo Eskualde Ospitalean postala eskatu eta han bete dezake eskakizun horiekin bat egiteko.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7	KIROLA /10	KULTURA /12
Izatezko bikoteak	Kenci Arrasate zailtasunekin	IX. akordeoi lehiaketa
Izatezko bikoteen gainean elkarrizketa Iñigo Lamar-karekin, Gehitu elkarteko presidentearekin.	Kenci Arrasate-ren helburua igoera fasea jokatzeko da, baina gauzak asko zaildu zaizkie.	IX. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa egingo da Amaia antzokian abenduaren 5 eta 8 artean.

ASTEKO DATUA

866

IKASLE BERRI MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

Aurtengo ikasturtean zortziehun eta hirurogeita sei ikasle berri matrikulatu dira Mondragon Unibertsitateko Fakultatean. Guztira, 3.715 ikasle batuko ditu Mondragon Unibertsitateak.

BESTE EKESANA

Windowsa erabiltzailearentzat kanpotik datorren zerbait da, erraldi baten ekoizpena. Beti

ikusten dira haren akatsak, eta beti ari dira bertsio berriak ateratzen... Beraz, erabiltzailea mugatuta dago beraien eskaintzetara. Linuxen, ordea, bakoitzak bere premietara egokitu dezake sistema. Eta dohainik. Izan ere, Interneten badaude toki batzuk fitxategiak transmisio baten bidez eskuratzeko (...). Hedadura maila urria du Euskal Herrian software libreak. Software gutxi egiten da orokorrean, eta librea oraindik ere gutxiago. Dena den, talde batzuk ari dira martxan. (...) Irakaskuntzan, software librea oso komenigarria da, gazteek eremu horretan gauzak egiteko aukera izan dezaten".

NESTOR GARAI
EUSKALDUNON EGUNKARIA/01-11-22

HERRITARREN BERBAK/ Itziar Ezpeleta



Hirugarren etapan sartu naiz

Gaur, ARRASATE PRESSen argitaratutako azkeneko idatziko harira bueltatu nahiko nuke. Idatzi hartan kontatu nuen nik gure bizitza, edo hobe esanda *bizitza programatua*, nola ikusten dudana. Ez nintzen gehiegi sartu Maritxu Kajoi eguna zelako, eta ez zelako pentsatzeko eguna, jaietan murgiltzeko baizik. Gaur, ordea, ez gaude jaietan. Niretzat lana izango da idaztea, baina aldi berean, nire kezka azaltzeko aprobetxatuko dut. Aurrekoan aipatu nuen hirugarren etapan sartu naizela, eta gustatuko litzaidake horri buruz idaztea. Emakumea naizen heinean, zein informazio jaso du gure buruak? Oraindik entzuten dugu "Erretiroa daukat" edo antzekoak. Hitz horiek entzuterakoan, emakume ginekologo baten hitzak gogoratzen ditut beti (askotan emakume horren hitzaldietan egon bainaiz). Ginekologo horrek ez du bere haserrea ezkatzen eta

emakumeei zera esaten digu: "Zu al zara emakumezkoa, hilekoa eta uteroa daukazulako?"

Ahaztu ditzagun esan horiek, gaur egun, emakumea ez baita 50 urterekin erretiratzeko. Eta bere emakume izatea ez datza uteroan bakarrik.

Akaso antzina, eta oraindik triburen batzuetan, andreen helburu bakarra umeak edukitzea zen.

Gaur egun, emakumeak, batez beste, laurogei urtera heltzen gara. Gure bizitza luzatu egin da, bizi-maila

ere nolabait hobetu da. Ahaztu behar menopausia gaixotasuna. Batzuek *desajusteak* izaten dituzte. Horretarako daude sendagileak, martxan jartzeko. Beste batzuek kabi hutsaren sindromea daukagu, gure semeak independizatu baitira. Aldaketa asko dira, beste etapa baten sartzen gara, baina etapa honek ez al du bizitza merezi? Noski. Ziur etapa honetan ere gauza asko deskubrituko ditugula.

"Aldaketa asko dira, beste etapa baten sartzen gara, baina ziur etapa honetan ere gauza asko deskubrituko ditugula"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna, z/b
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera,
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla,
Izaskun Bolinaga,
Natali Martinez,
Imanol Elortza
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala

Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 30
Morales. Araba etorb. 15 943 79 18 65

ZAPATUA, 1
Azkoaga. Ferrerías 1. 943 79 15 15

DOMEKA, 2
Azkoaga. Iturriotz. 943 79 99

ASTELEHENA, 3
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 . . . 943 79 22 26

MARTITZENA, 4
Irizar. Erguin 11. 943 79 12 39

EGUAZTENA 5
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUENA, 6
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Delak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburu eta jaiegunetan egun osoa

ARRASATE
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 10:30 (gaztelaniaz) 11:30 San Isidron (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

BERBALDIA LIBURUTEGIAN
Arrasateko liburutegiak berbaldia antolatu du gaurko Monterronen, 18:30ean. Teresa Duran bartzelonarrak *Sexismoa Ilustrazioan* izango du hizpide, Euskal Irudigileen aretoarekin lotuta.

GAZTETXEKO HITZALDIK
Gaur, 19:00etan, ESAITeko partaide batek Euskal Selektzioaren inguruan berba egingo du gaztetxean. Domekan, berriz, Oskar Markidak Mongoliaren gainean berbaldia eta diaporama egingo ditu gaztetxean, 18:30ean.

JOSTAILUAK BERBAGAI
Abenduaren 3an, bi berbal-di egingo dituzte Amaia Sarrionandiak eta Maria Jesus Apodakak, *Gabonak eta Olentzero gertu daudelarik jostailu egokiak aukeratu beharrean aurkitzen gara. Zeintzuk? Norentzat? Zergatik?* lelopean. 14:30ean Musakolako herri eskolan egingo dute eta 18:00etan Erguingo herri eskolan.

PERKUSIO IKASTAROA
Perkusio afrikar ikastaroa emango dute abenduaren 10ean eta 17an eta urtarrilaren 7an, 14an eta 21ean. Izena eman Gazte Bulegoan edo 943 798025 telefonoan.

AEDrenAGENDA

BERTSOLARI TXAPELKETARA
Abenduaren 16an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa eta bazkaria antolatu dute. Garraioa, janaria eta sarrera, dena 7.000 pezetan. Bertsosaleko kide izanez gero, 6.000 pezetan, eta 16 urtekoek edo gazteagoek, 4.000 pezetan. Izena eman abenduaren 11 baino lehen.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazuri, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Santa Barbarako lanak hasi dira jadanik

Construcciones Arrasate enpresa Santa Barbara parkea urbanizatzen hasi da. Hamar hilabetean, eta 87 miloi eta erdiko aurrekontuarekin, parkeari itxura berria emango diote. Proiektua bi zatitan banatu dute: bata, Luko aldekoa, eta bestea, Goikobalu eta Behekobalukoa.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lupardia"

1. Izotz handia (esaldi adierazkorretan bakarrik).
-Gaur gabian kriston lupardia bota jok.
-Azelakotxe lupardia dagon.

2. Mozkorra.
-Iez San Martzialen guk arrapau giñuan lupardia guk



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



'Pottokatzen' saio berria

Eguaztenetan, gaueko 10etatik aurrera, saio berria izango da entzungai. Fernando Mugarza oñatiarraren eskutik, *Pottokatzen* izeneko musika saioa eskainiko dizuegu. Hainbat estilotako musika izango da tarte horretan, baina batez ere, pop, folk edo country estilokoak. Kantua jarri aurretik, gainera, Fernandok abestiaren inguruko azalpena emango du.

Aurkezlea oñatiarra dela-eta, beste oñatiar batek, Mikel Aranburuk, egiten duen saioaren ostean izango da *Pottokatzen*. Saioa Oñati Irratian eskaintzen dute, eta hemendik aurrera Arrasate Irratian ere bai.

'Sorginen Laratza' asteko errepassoan

Eduarne Atxotegi, *Sorginen Laratza* lan egiten duen eskoriatzarra, elkarrizketatu dugu astean. *Sorginen Laratzako* euskara zuzentzailea da Eduarne, eta hark bere lana zelan egiten duen kontatu digu. Baina besterik ere izango da asteko errepassoan. Joxe Azurmendi Filosofia-ko irakasleak Jose Maria Arizmendiarraren inguruan luze egingo du berba, eta Zuhaitz Ezpeleta, berriz, joan den domekan korritu zuen maratonia mintzatuko da. Arrasatearrak, gainera, oso marka ona egin zuten: bi ordu eta 42 minutu behar izan zituen 42 kilometroak betetzeko.

HAUGIROA!

MINIMOA
Egubakoitza, 23 **1°C**

MAXIMOA
Eguaztena, 21 **12°C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
9,4

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 21	12 °C	7 °C	-
Eguena, 22	8 °C	6 °C	0,3
Egubakoitza, 23	9 °C	1 °C	3,4
Zapatua, 24	12 °C	5 °C	-
Domeka, 25	11 °C	1 °C	-
Astelehena, 26	10 °C	7 °C	5,5
Martitzena, 27	12 °C	4 °C	0,2

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea (errep.)

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZEA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a

MARTIZENA
21:00 Hi bizi hari

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz

EGUENA
21:00 Mikelenea

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Emakumeek bizi duten indarkeriaren aurkako kale bilkura Seber Altuben

Joan den domekan, *Emakumeek bizi dugun indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna* gogoratu eta salatu asmoz, kale bilkura egin zuten hainbat arrasatearrek ordu erdiz Seber Altube plazan. Aurrez, egubakoitzean, gai beraren gainean diaporama eskaini zuten herriko plazan. Bai domekako kale bilkura baita egubakoitzeko diaporama ere Arrasateko Emakumeen Kontseiluak antolatu zuen, eta Emakume Sailaren babesa izan zuen.

San Kristobalگو hilerrian gorpuak errausteko labea jartzen hasi dira

Joan den astelehenean hasi ziren San Kristobalگو hilerrian errausteko labea jartzen. Zaragozako Carfisa enpresari erosi dio labea Arrasateko Udalak, eta enpresa bereko adituak hasi dira labea jartzen. Labe horrek hamalau milioi eta erdiko kostua izan du, eta urtero ia 230 mila pezetako mantentze-lan kostua izango du. Labea San Kristobalگو hilerriaren atzeko aldean jarriko dute, lehengo zaharra zegoen leku berean, hain zuzen ere.

Osoko bilkura nahasia batzorde informatzaileen quoruma dela-eta

ETAren azkeneko atentatua gaitzesteko minutu bateko isilunea egin ostean hasi zen bilkura. Gaien artean, batzorde informatzaileak egiteko quorumari buruzko eztabaidak haserrea piztu zuen zinegotzien artean. Puntu hori lantzeko modua legezkoa ez zela salatu eta gero, PSEk eta PPK aretoa utzi egin zuten. Geratu zirenen artean (EA, EB, Batasuna eta EAJ), EAK, EBk eta Batasunak baiezkota eman zioten quoruma aldatzeko aurkeztutako proposamenari.



CCOO sindikatukoek amiantoaren gainean berbaldia egin zuten areto nagusian

CCOO sindikatukoek berbaldia egin zuten astelehenean Udaleko areto nagusian. Jesus Uzkudun EAEko CCOO sindikatuko Lan Osasun eta Ingurumen idazkariak amiantoaren eraginek sortutako osasun arazoak aztertu zituen.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Babesten gaituzten legeak

Joan den astean jakin izan nuen bi gaztek Arrasateko alde zaharrean kartelak jartzeagatik epaiekta izan dutela, eta azkenean epaiak zera erabaki duela: bakoitzari bi asteburuko kartzela zigorra ezarri diote, alde zaharreko paretetan kartelak jartzeagatik ondusun publikoan *kalteak* eragin dituztelakoan. Itxura denez, epailea eta fiskala, ezarrita-


ko zigorrarekin damutu ez, baina kezkatu agertu ziren, eta horrela jakinarazi zieten zigortutakoei. Hain zuzen ere, kode penal berriak halako zigorra aurreikusten ei du, eta eurak ere *legea betetzen* ari zirela azaldu nahi izan zuten. Gaitz erdi!

Gertaera honek, eta batez ere, kartelak jarri zituztenei ezarri dieten zigorrak, asko harritu nau. Ez zait batere

ondo iruditzen. Are gutxiago, herriko paretak dauden moduan ikusita. Nola da posible kartelak jartzeagatik bi asteburuko kartzela zigorra ezartzea? Zigor zentzagarria ote? Eredutzat hartu eta beldurra sortu nahi duena?

Aspaldi, kode penal berria onartzeko orduan, kritika asko eragin zituzten haren legeek, baina ohikoa den moduan, azkar estali zituzten keak, eta orain halakoak ikusi behar!

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

AMAIA ANTZOKIA BERRIRO ERE ABIAN

Udalarena den Amaia antzokia berriro ere abian izango dugu datorren astean, abenduaren 5ean, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketarekin berrestreinatuko da-eta. Azkenean, lanek 230 milioi pezetako kostua izan dute, eta berrikuntza garrantzitsuak egin dituzte antzokian bertan. Zailtasunak dituz-

tenendako egokitu dute sarrera, igogailuak eta plataforma ezartzeaz gain. Horrekin batera, jarleku eta soinu ekipo berriak, intsonorizazio hobea eta beste hainbat gauza hobetu dituzte. Antzokia zabaltearekin batera, Udaleko Kultura Sailak abendu eta urtarrilerako egitaraua aurkeztu zuen.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA

Industria
hornidurak

Tel. 943 71 24 25

ION LEHIOAK

Leihoak
Ateak
Horma armairuak
Zoruak

Kanpantorrea, 2
Tel./faxa: 943 79 11 35
20500 ARRASATE

Rótulos Pando

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun Kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Erauskailuak
- Biniloa
- Señalizazioa
- Lonak
- Letra-Korporeoak

MEDIKUNTZA/ Azaroaren 26tik abenduaren 3ra arte Bihotzaren Astea

ATCOREK antolatuta bihotz transplanteen gainean hitzaldiak bihar Arrasaten

XABIER URZELAI

ATCORE Gaixo eta Transplanta-tuen Elkarteak Bihotzaren Astea antolatu du azaroaren 26tik abenduaren 3ra arte. Bihar, zapatua, Eukeni Olabarrieta, Jose Luis Martínez eta Ignacio Gallo medikuek berbaldia egingo dute Monterron jauregian.

ATCORE elkarte orain dela 10 urte sortu zen, eta haren helburu nagusia Euskal Herriko gaixo eta transplantatuei informazioa eta laguntza eskaintzea da. Elkar-atea hirurogeita bi kidek osatzen dute, eta guztiek ere bihotza transplantatuta daukate. Hala ere, hori ez da elkarteko kide izateko nahitaezko baldintza, lagundu gura duenak ATCOREko atek zabal-zabalik izango ditu-eta.

ATCORE elkartearen arabe-ra, ekintzak hiru asmo hauetara bideratu behar ditu: bihotzeko gaixotasunen prebentziora, biztanleria organoak ematearen beharraz ohartaraztera eta transplantatuendako, edo batez ere horretarako bidean daudeneko, itxaropena eta lekuko izatera. Alde horretatik, ATCOREko kideak beste inor baino aproposagoak dira hiru arlo horiek sustatzeko. Alde batetik, euren inork baino hobeto dakite zenbaterainoko garrantzia duen organo emaileak egotea, euren bizitzek beste batzuen esku-zabaltasunari esker egin dute-eta aurrera. Bestalde, gaixoei itxaropena eman eta euren lekuko izaterako orduan, gaixotasun hori izan duena baino aproposagorik ez dago; izan ere, hori guztia pasatu duenak hainbat aholku eta animu eman ditzake.

ATCORE elkarteko kideek hainbat gaixo bisitatzen dituzte, eta horrez gain, askotan joaten dira Santanderrera; izan ere, bihotzeko transplanteak Valdecillas-ko ospitalean soilik egiten dira. Juanito Arriaran arrasatearra elkarte horretako kide da, eta bihotzeko arazoa gainditu eta segidan, elkartean eman zuen izena: "Ni gaizki izan nintzenez, elkarte horretako batzuen bisita izan nuen, eta nik aurrera egitea lortu nuenean, bide bera jarraitzea erabaki nuen".

DIRUA, BETIKO ARAZOA

Gaur egun, horrelako elkarte bat aurrera ateratzeko, dirulaguntzak behar-beharrezkoak dira. Berbaldiak egitea ez da batere erraza, eta medikuak doan etortzen, badira ere, bidaietan eta publizitatea egiten diru mordoak joaten da. "Edozertarako behar da dirua, eta gu elkartean 62 kide bakarrik garenez, zailtasunak izaten ditugu dirua eskuratzeko. Eskerrak Diputazioarekin harre-



ARRASATE PRESS

Bihotzean ebakuntza egin aurretik, medikuek beste aukera guztiak aztertzen dituzte.

ATCORE elkartearen helburu nagusienetako bat organo emaileak topatzea da

man ona dugula eta, horrekin batera, medikuek eta beste hainbat lagunek erraztasunak ematen dizkigutela". Bihotzaren Astean

Arrasaten pisuzko hiru mediku izango dira: J.L. Ubago, Eukeni Olabarrieta eta Ignacio Gallo

hiru hitzaldi izango dira: Arrasaten, Gasteizen eta Bilbon. Juanito Arriaranen esanetan, zapatuko hitzaldiak Arrasaten egitea

Bihotz gaixotasunei aurre egiteko, baliabide asko dago gaur egun. Inoiz ez da atzera egin behar

luxua da. Horrelako hitzaldiak, normalean, hiriburuetan izaten dira, baina Jose Luis Martínez de Ubago mediku arrasatearrari

hitzaldia Arrasaten egitea posatu ziotenean, berehala esan zuen baietz. Harekin batera Eukeni Olabarrieta eta Ignacio Gallo medikuak ere izango dira bihar Monterronen. Haste baten, Eukeni Olabarrieta izan behar zen bigarren hizlaria, baina azkenean, Ignacio Gallo kidea ere animatu da. Bihar, hitzaldia, punta-puntako hiru doktore izango dira Monterron jauregi berbetan.

GAI BERBERA, MINTZALDI EZBERDINAK
Biharko berbaldietan hiru mediku horiek gai berbera izango dute mintzagai, baina hirurek ere hitzaldia puntu ezberdinak jorratuko dituzte.

Eukeni Olabarrieta medikua arteriosklerosi gaixotasuna zelatik ekidin daitekeen aztertuko da. Gaixotasun kardiobaskulara dira gizarte industrialeko heriotza-heriotzaren arrazoi nagusiak. 70eko hamarkadan, Arrasateko kooperatibetan gaixotasun horiek antzeman, eta aurrera eraman hasi ziren. Gaixotasun hori aurka egiteko, hainbat aholku aldatu behar dira, eta berehala garrantzia dauka umei txiki- txiki kitatik ohitura osasungarria irakastea.

Jose Luis Martínez de Ubago hemodinamika terapeutikaren mintzatuko da. Gaur egun, gaixotasun handia dago bihotz arazoaren gainean. Badirudi gaixotasun hori daukanak ezarri egin dezakeela, baina kardiobaskular klinikoak, hemodinamika terapeutikoak eta kirurgiak larri-arazorik emaitzak eskaintzen dituzte. Bihotz gaixotasunak dituztenak kontzientziatu egin behar dira, inoiz ez atzera egin; izan ere, gaixotasun horri aurre egiteko baliabide asko dago.

Mediku adituak bihotzeko arazoez berbetan



JOSE LUIS UBAGO
MEDIKUA

Arrasatearra da, eta 1943. urtean jaio zen Maalan.

Ikasketak Arrasateko eskola publikoan hasi zituen, Calvo irakaslearen gidaritzapean. Gero, Gasteiz eta Iruñean izan zen, eta han

Hemodinamikan espezializatu zen. Valdecillas-ko ospitalean, Santanderren, hemodinamika eta kirurgia sakon aztertu zituen, eta gaur egun, Gipuzkoako Poliklinikan egiten du lan.

Estatuan, Jose Luis Ubago mediku arrasatearra izan zen balbula eta bihotz arterietan lehen dilatazioak egin zituen hemodinamista. Arlo horretan hark egindako ekarpenak mundu osoan dira ezagunak.

1997an, Kardiologiako Europako Elkarteak Jose Luis Ubagori omenaldia egin zion, hura izan zen-eta Estatuan lehen angioplastia egin zuen medikua.



EUKENI OLABARRIETA
MEDIKUA

Eukeni 1943. urtean jaio zen Deustuan.

Ikasketak Bilboko Santia- go Apostol eskolan hasi zituen, eta gero, Valladolid-eko Unibertsitatean izan zen. Hantxe Medikuntzan eta

Kirurgian lizentziatu zen. Lan Osasun Zerbitzuak kudeatzen aditua da, eta 1991tik 2000ra arte, Lagun Aroko Lan Osasun Zerbitzuetako zuzendaria izan da. Eukeni Olabarrieta irakasle ere izan zen. Epidemiologia ikasketak eman zituen Arrasateko San Viator ikastetxean. 1979an, Mondragon Plana izeneko egitasmoan parte hartu zuen, hainbat fundazio eta ospitale-ekin lankidetzan. Egitasmo horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko Bihotz Gaixotasunen Institutua sortu zuten, eta Eukeni medikua Zientzialarien Batzordeko kide izan zen.

EUSKARA/ Osasun etxeetan euskara normalizatzeko kanpaina

Euskararen aldeko kanpaina hasi dute osasun etxeetan


UBANE MADERA

Euskal Herriko osasun etxeetan euskara normalizatzeko kanpaina hasi dute. Eskatzen dute osasun etxeetan euskara normalizatzeko plan estrategikoa egin eta gauzatzea. UEMAK, ELAK, LABek eta OEEK (Osasungintza Euskalduntzeko Erakundeak) sinatu dute.

Hilabete iraungo du kanpainak, abenduaren 20ra arte, hain justu. Tarte horretan, euskararen normalizazioaren aldeko kartelak ikusiko ditugu osasun etxeetan, eta postalak egongo dira eskuragai. Hortaz, osasun zerbitzuak euskalduntzearen alde dagoenak postala eska dezake Eskualde Ospitalean zein anbulatorioan, postala bete eta han bertan utzi.

ZERBITZU DISKRIMINATZAILEA

Kanpainaren bultzatzaileek salatzzen dute "osasun arloan sendagile, erizain, pediatra... eta gaxoen arteko komunikazioa faktore erabakigarria izan daitekeela edozein gaxotasun gainditzeko. Hortaz, euskaldunei osasun zerbitzuak euskaraz ematen ez zaizkien bitartean, herritarren eskubide horiek zapalduak izango dira, lege-haustea egingo da eta zerbitzu kaskarra eta diskriminatzailea eskainiko da". Euskararen normalizazioa legez babestuta dagoela gogorarazi eta gero, lau puntuko plana proposatzen dute: besteak beste, euskararen aldeko



UBANE MADERA

Postalak egongo dira eskuragai. Interesa duenak bete eta han bertan utzi behar du.

plana ez izatea behin-behineko arazoak konpontzeko bakarrik; globala eta progresiboa izatea, lehen mailako zerbitzuei lehenetasuna emanez, eta plana langileen ordezkariekin adostuta egitea.

Plan estrategikoa aplikatzen hasi arte, inguru euskaldunetan larrialdiko neurriak hartu behar direla ere gaineratu dute, eta motibazio eta sentsibilizazio lana bultzatu.

LABUR

Argia joan zen Arrasateko kale askotan astelehen arratsaldetik ilunkera arte

Astelehen arratsaldean argia joan zen Arrasateko kale askotan. Itxura denez, ur eroanbideetan lanean zebiltzan udal langileek hanka-sartzea egin zuten. Laubide aparkalekuko lur azpiko eroanbideetan lanean zebiltzala, ezusteko hodi batekin egin zuten topo. Eta hodi hori moztu zutenean joan zen argia; orduantxe konturatu ziren argindarrarekin lotutako hodi bat zela, eta ez ur eroanbidea.

Horren ondorioz, 15:30ak inguruan argia joan zen eta iluntzeko 18:00ak pasatxo zirenean bueltatu zen; esaterako, gurean.

4.300.000 pezeta, San Juan de Dios ospitaleko psikogeriatría zerbitzuari laguntzeko

La Caixa Fundazioak eta San Juan de Dios ospitaleak hitzarmena sinatu zuten martitzenean. Horren arabera, La Caixa Fundazioak 4.300.000 pezeta emango dizkio San Juan de Dios ospitaleari, haren psikogeriatría proiektuan inbertitzeko. Diru horrekin, hobekuntzak egingo dituzte psikogeriatría gunean, klimatizazio sistematan eta tresnerian, bereziki.

Proiektu horrek gaur egun denboraldi jakin baterako ospitaleratu beharra duten 17 lagunendako zerbitzua eskaintzen du. Baina helburua da gaitz psikikoak dituzten pertsona nagusiei laguntza ematea, bai epe motzerako edo epe luzerako ospitaleratu beharra dutenei, bai eta Gipuzkoako Eguneko Zentroetara joaten direnei ere. Lehenengo aldia da La Caixa Fundazioak era horretako diru-laguntza ematen diola EAEko erakunde bati.

Eusko Abertzale Ekintzaren (EAE-ANV) 71. urtemuga ospatu dute gaur Mondragoen

EAE-ANV alderdi historikoak 71. urtemuga bete du gaur. Eta EAEk Mondragoe aukeratu du hori ospatzeko. Batetik, omenaldi berezia egin diete alderdiaren emakumeei, eta bereziki, 30eko hamarkadan Deba ibarrean ezker abertzaleko aurreneko erakundea izan zen Erakunde Ekintzan lan egin zuten emakumeei. Gero, Roberto, Zapa eta Emiliren plazan omenaldia egingo diete borrokan hildako ezker abertzaleko Mondragoeko ekintzaileei. Aurrenekoa EAEko militante bat izan zen, 1936an Oiartzungo Aiako haitzetan tropa faxistei aurre egiten alderdiko aurreneko boluntarioekin ari zela. Azkena Roberto Aranburu izan zen, haren burkide Jose Maria Iturriotz Zapa eta Mondragoeko bizilagun zen Emilia Larrearekin batera 1978an hil zituen Guardia Zibilak. Omenaldiaren ondoren, kalejira egin dute, eta gero, bazkaria.

ELKARRIZKETA

IÑIGO LAMARKA/GEHITU TALDEKO PRESIDENTEA

"Gizarteak eraginda, gay eta lesbiana askok beldurra diote harremana formalizatzeari"

UBANE MADERA

Arrasateko Udalak onartu egin du izateko bikote batek udal erregistroan (errollan) izena ematen duenean, izenemate hori zeregonia bidez ospatzeko eskubidea duela, ezkontza heterosexualetan egiten den moduan. HEGOA eta GEHITU taldeek aurkeztu zuten mozioa. Gu GEHITU taldeko presidentearekin izan gara, gaia apur bat gehiago argitzeko. Hara zer kontatu digun Iñigo Lamarkak:

Zein da mozioaren helburua?

Lehenik eta behin, argitu egin beharko litzateke ezkontza deitzen denak bi alderdi dituela: juri-

dikoa (kontratua sinatzen da eta horrek ondorio legalak ditu) eta ospakizunaren alderdia. Zoritxarrez, sexu bereko bikoteek ez daukagu ezkontzeko aukerarik. Dagoen aukera bakarra da udal errollan izena ematea. Edozelan ere, guri inportantea iruditzen zaigu udal errollan izena ematen dugunean aukera izatea hori ospatzeko, bikote heterosexualetan moduan.

Horrelakorik egin da Euskal Herrian?

Bai, adibidez, urrian, Donostian ospakizuna egin zen Udaleko areto nagusian, eta oso polita izan zen, gainera, zeremonia, musika eta guzti.

Horrelako mozio gehiago aurkeztu duzue?

Bai, EAEko udal guztietan, eta asmoa da Nafarroan ere aurkezte. Eta pixkanaka-pixkanaka heltzen ari zaigu udaletan mozioak onartzen ari direla, eta ondorioz, beste esparru bat zabalduko da, gura duten bikoteek ospakizunak egin ditzaten.

Apurka-apurka euskal alderdi politikoak ari dira gure eskerak aintzat hartzen. Hasieran, EB eta Batasuna ziren bakarrak, gero, Alderdi Sozialistak ere onartu zuen, baita EAK ere, eta azkena EAJ izan da. PP erabat aurka dago, nahiz eta barruko batzuk alde egon. Gainerakoek onartzen



EGUNKARIA

dute gay eta lesbianeiei duintasunezko tratamendua zor zaiela eta beharrezkoa dela sexu bereko bikoteek bikote heterosexualetan eskubide berak izatea.

Bikoteak animatuko dira?

Uste dut gutxi animatuko direla, baina bikote heterosexualetan artean ere, askok ez dute gura ezkontzerik. Eta ezkondu gura dutenen artean, zoritxarrez, eta gizarte medioak eraginda, gay eta lesbiana askok ezkutuan bizi dute harremana; edo, asko jota, lagun eta familia esparru oso txikituan normalizatu dute egoera. Beldurra izaten dute euren harremana formalizatzeko eta, ondorioz, gizarteari jakinarazteko.

Irisgarritasuna eta segurtasuna hobetu dituzte Amaia antzokian


UBANE MADERA

Abenduaren 5ean, erabat berritutako antzokia estreinatuko dugu Arrasaten: Amaia antzokia. Udalak 230 milioi pezeta eta sei hilabete inbertitu ditu berritze lanak egiteko. Irisgarritasuna eta herritarren segurtasuna dira berritutako elementuetako batzuk.

Nazioarteko Akordeoi Lehiaketarekin batera estreinatuko dugu berritutako Amaia antzokia. Halaxe adierazi zuten martitzenean emandako prentsurrekoan. Han izan ziren Udaleko Kultura eta Hirigintza sailtako ordezkariak, alkatea barne, eta Amenabar enpresaren ordezkariak, lanak egiten ari diren enpresarenak, alegia.

IRISGARRITASUNA

Adierazitakoaren arabera, behetik hasi eta goraino egin dituzte berrikuntza lanak. Esaterako, sarrera edo *halla* txarto zegoen (berogailu eta agertoki barik, eta intsonorizazio arazoekin), eta horiek konpondu egin dituzte; gainera, itxura ere hobetu dute. Horrekin batera, zailtasunak dituzten pertsonendako egokitu dute sarrera: kanpoko sarreran aldapak ipini dituzte eta goiko solairuetara igotzeko plataforma ipini dute. Era berean, agertokira bertara iristeko ere beste plataforma bat ipini dute, musikari, artista edo bestelakoendako. Eta areto nagusiko jarlekuen ilara eta erdi egokituta dago ezin duendako.



IKER BARANDIARAN

Ilara eta erdi jarleku egokitu dituzte, zailtasunak dituztenendako

Segurtasuna ere zaindu dute antzokia berritzeko orduan. Adibidez, suteen kontrako sistema berritu dute; agertokiari berari ere suteen kontrako sistema berezia ipini diote, eta jarlekuak berezia dira, suteei aurre egiteko araudiaren arabera ezarritakoak. Era berean, jarlekuak berritu dituztela aprobetxatuz, jarleku berriak modu egokiagoan ipini dituzte, ekitaldiak hobeto ikusteko. Hori dela eta, lehen, 800 jarleku baino gehiago zeuden, eta orain, 789 daude. Era berean, areto nagusira sartzeko zeuden hiru sarreretako bat kendu egin dute: erdikoa, alegia.

Bestalde, sabaia ere berritu dute, sabai faltsua ipini dute (horri esker aretoa seguruagoa da eta akustika hobea dago), eta tei-

latua gorago ipini dute; horrela, orain, lehen ez bezala, euria egiten duenean ez da ezer entzungo. Beste berritasun bat ere igarriko diogu antzokiari: hemendik aurrera, antzokia bi zatitan banatzeko aukera izango da, formatu txikiagoko ekitaldietarako (300 lagunetik beherakoendako); horrela, giro goxoagoa lortuko dute. Horretarako, gortina bat ipini dute.

Gainera, soinu ekipoa ere berritu dute, baita proiektzio gela ere. Intsonorizatu egin dute eta langileendako aldagelak egin dituzte.

Maiatzean hasi ziren lanok egiten, hortaz, sei hilabetez jardun dute. Aurrekontua 222 milioi pezetakoa izan da, baina, azkenean, 230 milioi inbertitu dituzte.

400 bat sinadura aurkeztu dituzte peatonalizazioaren araudia aldatzeko

Laurehun sinadura inguru aurkeztu dituzte Udaletxean, alde zaharren peatonalizazioa dela eta. Alde zaharra oinezkoendako gune izateko Udalak ezarritako araudiarekin konforme ez dauden alde zaharreko zenbait bizilagun eta merkatarik aurkeztu zituzten joan den astean sinadura horiek. Eta sinadurei laguntzen testu bat ere aurkeztu zuten.

ONEZKOENDAKO BAI, "ITXIALDIA" EZ

Besteak beste, adierazi dute eurak direla alde zaharra oinezko gune egiteko interesa duten lehenak, "ondare historikoaren kontserbaziorako mesedegarria" izango dela uste dute eta. Baina, era berean, gaineratu dute desberdina dela alde zaharra oinezkoen gune bihurtzea eta "eguneko zati handi baten" jasaten duten "itxialdia". Bestalde, etxearekin batera garajerik ez izateak sortzen dien eragozpenak ere



UBANE

Kaleak zabaltzeko giltzak eskatu dituzte.

aipatu dituzte testuan: etxeko atariraino ezin direla heldu zamak utzi edo eramateko; pertsona nagusiei edo gaixoei larrialdietan laguntzeko, edo obrak egiteko. Are gehiago, gaineratu dute dagoeneko badago-

ela alde zaharrean lanik egin gura ez duen gremiorik.

HIRU ESKAERA

Hiru eskaera egin dituzte sinduren babesean: "Batetik, alde zaharreko sarrera bat beti zabalik uztea, bizilagunek erabilera egokia emango dioten konpromisoarekin. Baldintza horren urratzaileak zigortu egin beharko dituzte; bestetik, kaleak irekitzeko gailuak merkatarik eta bizilagun guztiei banatzea; eta hirugarrenik, sarreran monitorizatutako kontrol sistema bat ipintzea, bizilagunen identifikazioa gaitzeko".

Esan bezala, eskaera horiek Udalean daude joan den asteaz gerotik. Orain, gaia dagokion sailean landu beharko dute, Zerbitzuetan, kasu honetan; eta gero, Gobernu batzordeak aztertu eta erabakiko du zer egin. Seguruenik datorren astean izango da hori.

LABUR

Hiesaren Mundu Eguna gogoratzeko hainbat ekimen egingo dituzte Arrasaten

Urtero moduan, bihar, abenduak 1, Hiesaren Mundu Eguna gogoratu da, gaixotasun bortitz horrek kaltetutako jendeari babesa emateko eguna. Hori dela eta, Arrasaten zenbait ekimen egingo dituzte. Horrela, bada, gaur, egubakoitza, hiesari aurre egiteko bideen gainean berbaldia egingo dute Udaletxeko areto nagusian, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Bihar, berriz, informazioa emateko, mahaiak ipiniko dituzte Herriko plazan, eta 17:00etatik aurrera, let taldearen antzerki saioa izango da leku berean.

Matrikulazioa %8 igo da aurtengo ikasturtean Mondragon Unibertsitatean

2001-2002 ikasturtean 3.715 ikasle eman dute izena Mondragon Unibertsitatean. Horrek esan gura du iazko ikasturtean 866 ikasle gehiago dagoela unibertsitatean. Ikasle gehienak duen fakultatea Eskoriatzakoa izan da, Humanitate Fakultatean, alegia; %21'3 igo da hango ikasle kopurua. Eta Eskola Teknikoan, %7ko igoerarekin. Enpresa Zientzietan, berriz, iaz baino ikasle gutxiagok eman dute izena, gutxiagok, hain justu.

Unibertsitate Lege berriaren kontrako greba orokorra eta manifestazioa Arrasaten

Unibertsitate Lege berriaren kontrako greba orokorra eta manifestazioa izan zen Arrasaten eguaztenean. Ikasle Abertzaleen Segi taldeek deituta, salatu gura dute "lege hori ez dagoela Herriarendako eginda eta, hortaz, ez dutela onartuko". Unibertsitate lege arrotzei intsumisioa lelopean, kale agerraldia egingo du eguerdian. Goi mailako eta maila ertainetako 600 bat ikasleek zuten protesta ekitaldian. Horrez gain, datorren abenduaren 10ean, Konstituzio Egunaren kontra, herri eskolak iragarri dituzte.


Sonografoen emaitzen ondorioz isunak dituzten tabernariak ordaindu egin beharko dituzte

Ordutegia ez betetzeagatik isunak ipintzeko prozedura ireki dute Udalak Arrogioi, Gure-Leku, Branka eta Doke tabernei. Tabernariak horietan sonografoak ipini zituen Udalak, eta horrela jakin taberneak ez zutela legezko ordutegia betetzen. Baina Udala ez du horiek protestak eragin zituen zenbait tabernariaren aurka. Euren adostasunen bat egiteko asmoarekin, Udalak isunak ipintzeko prozedurak eten zituen joan den uztailean. Baina, Gobernu batzordeak erabaki du aurrera egitea isunen prozedurarekin. Hortaz, taberneak isunak ordaindu beharko dituzte. Udalak sonografoak ipintzen segituko duela ere iragarri dute.



Auto istripu larregi

Zoritxarrez, azkenaldian istripu larregi gertatzen ari da alde zaharrean eta inguruan. Aurreko asteko eguenean, 23 urteko R.E. gizona hil zen Garagartzarako bidean izandako istripuan. Astelehen, bergarar gazte bat hil zen hemengo saihesbidean. Eta martitzenean, auto batek eta furgoneta batek elkar jo zuten Arrasaten, eta 28 urteko N.B.L. aretxabaletarrak zauri arinak izan zituen.



GAUR, AZKEN 8 ORDUAK

Juanito Osinagak gaur izan du azken laneguna; izan ere, erretiratzeko ordua iritsi zaio. Duda barik, ospatzeko eguna da gaurkoa, eta Arteaga jatetxean afalduko dute LKSkoko 34 lagunek. Juanito Osinaga pilotako epailea da, eta Uribarri elkarteko kidea ere bada. Astelehenerdik aurrera, emazteak fin-fin lanera joaten jarraitu beharko du; hortaz, esan beharrik ez dago nori tokatuko zaion etxeko-lanak egitea.



ZUHAITZAK, HOSTO BARIK

Udazkena aspaldi iritsi zen gurera, baina Portaloiko zuhaitzak biluzik ikusi arte badirudi ez daukagula zertan jertse sendorik jantzi beharrik. Langileak fin ibili ziren eguaztean zuhaitz guztiei hosto eta adarrak kentzen, besteak beste, zuhaitzak indarberritzeko asmoz. Ez daude asko, hortaz, zaindu egin behar.

ARRASATEK BADAUKA LANDETxea

Arrasatek badauka landetxea dagoeneko. Joan den astean, Garagartza eta Udala artean dagoen Arteaga landetxea inauguratu zuten. Guztira sei logela ditu, eta 150 lagunek bazkaltzeko lekua du. Aurreneko gauean logelak beteta egon ziren, eta lehenak Txiletar batzuk izan ziren. Hau da marka!



UMEAK ARRASATE IRRATIAN

Arizmendiko umezaintzako umeak Arrasate Irratian izan genituen joan den eguaztean. Bost urteko neska-mutiko hauek Raquelekin, haien musika irakaslearekin, etorri ziren, eta irratia bisitatzeaz gain, zuzenean abestera ere ausartu ziren. Gaztetxoek, besteak beste, *Aldapeko sagarraren...* eta *Behin joan nintzen...* abestiak kantatu zituzten. Berba egiteaz gain, batzuk abestera ere animatzen dira.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

ESKUBALOIA

Arrasate Almenek domeka eguerdian jokatu du Egialde taldearen kontra

Gabonak baino lehen Bernardo Balerdiren mutilek garrantzi handiko partidu bi jokatu dituzte Egialde eta Bergararen kontra

XABIER URZELAI

Senior mailako lehen taldeak goiko postuetan dauden Egialde eta Bergararen kontra neurtu beharko ditu indarrak datorren asteotan. Domekan, Egialde taldea izango dute aurrez aurre, eta irabazi egin beharko dute goian egoteko.

Senior mailako lehen taldeak Loiola taldearen aurka jokatu zuen joan den asteburuan. Arrasatearrak puntu bakarrarekin bueltatu ziren, 22-22 amaitu zen eta partidua. Ez ziren batere fin ibili, eta irabaz zitekeen partidua berdinketarekin amaitu zen. Bigarren zatian bi taldeak hamar minutuz gol bat bera ere egin barik egon ziren, eta horrek argi uzten du dena. Etxekoek erasoan izaten dituzte arazo gehienak, eta aurreko partiduan ere ez zuten asmatu.

Arrasatearrek bi partidu garrantzitsu dauzkate Gabonak iritsi aurretik. Oraingo domekan, Bernardo Balerdiren muti-

lek Egialde taldearen aurka jokatu dute eguerdiko hamabieta-tik aurrera. Hemendik aste bira Bergararen kontra neurtu beharko dituzte indarrak. Bi talde horiek arrasatearren aurretik daude, eta etxekoek goiko postuetan egon gura badute, partidu horiek irabazteak berebiziko garrantzia izango du.

BIGARREN TALDEAK ERE EZIN

Jesus Mari Herrerok gidatzen duen taldeak galdu egin zuen joan den astean jokatuako partidua. Senior mailako talde gazte honek Arrateren kontra neurtu zituen indarrak, eta ezin izan zuten denboraldiko lehen partidua irabazi.

Entrenatzailearen esanetan, gazte hauei motibazioa falta zaie. Beste taldeek esperientzia askoz handiagoa dute, baina etxekoak partidu zailtan neurria ematen dute, eta gainerako partiduetan ez. Oraingo asteburuan, Donibaneren kontra jokatu dute, Pasaian. Zapatuan, arratsaldeko seietan.



Seniorreko bigarren taldeak 15 eta 23 galdu zuen joan den astean Arrateren kontra.

Mondrak 2-0 irabazi zion Kilimoni, eta Soraluze izango da hurrengoa

XABIER URZELAI

Mondra futbol taldeak bi eta huts irabazi zion Kilimoni joan den astean jokatuako partiduan. Etxekoek hasieratik erakutsi zuten talde hobea zutela, baina izandako gol aukerak ez zituzten aprobetxatu. Azkenean, bi eta hutsekoa motz geratu zen.

Mondra taldeak derrigor irabazi beharreko partidua jokatu zuen joan den zapatuan Atxabalpen, eta Raul Leibaren mutilek ez zuten kale egin. Aurkaria sailkapenean azkena zen, Kilimon, eta, horrela, arrasatearrek hiru puntuak eskuratzeko beharra zeukaten.

Partiduko lehenengo zatian arrasatearrak jaun eta jabe izan ziren, jokoan bai, behintzat, baina gol aukera asko izanda ere, etxekoek ez zituzten aprobetxatu. Atsedenaldirako bost minutu falta zirela, Jon Muruamendiarazek egin zuen bat eta hutseko gola.

Bigarren zatian Kilimon lehen zatian baino gogotsuago irten zen, eta lehenengo ordu laurdenean kanpotarrak izan ziren nagusi. Hala ere, etxekoek berriro ere jokoaren kontrola berres-



OXEL EROSTARBE

Zapatuan, Kilimonen aurka jokatu zuen hasierako hamaikakoa.

kuratu zuten, eta Kilimon 10 jokalarirekin geratu zenean ia guztia erabakita geratu zen. Muxik, partidua amaitzeko bost minutu falta zirela, bi eta hutsekoa egin zuten.

HURRENGOA SORALUZE

Gabonak iritsi aurretik, etxeko taldeak hiru partidu jokatu beharko ditu, eta lehena oraingo zapatuan izango da Soraluzeren kontra. Hiru partidu horietan ahalik

eta puntu gehien eskuratzeko komeni da. Joan den urtean, denboraldi amaieran etxeko taldeak maila polita erakutsi zuen, baina ordurako berandu zen ezer egiteko.

Oraingo liderra Amaiak Bat taldea da, eta dagoeneko 13 puntuko aldea dauka. Hala ere, oraindik beste 60 puntu daude jokoan; hortaz, oraindik ez dezagun ezer aurreratu. Hurrengoa Soraluze izango da.

Kenci Arrasatek igoera fasea jokatzeko azken aukera

XABIER URZELAI

Kenci Arrasatek galdu egin zuen joan den astean Eurotaller taldearen kontra. Arrasatearrek aukera gutxi dituzte mailaz igotzeko fasea jokatzeko, baina oraindik badaude aukerarik.

Arrasateko saskibaloitza taldeak aukera bakarra du igoera fasea jokatzeko. Joan den asteburuko porrota eta gero, Iker Zubiriaren mutilek zailtasun asko izango dituzte helburu nagusia betetzeko: igoera fasea jokatzeko, alegia.

Arrasatearrek Iturripen jokatu zuten Eurotaller talde bizkaitarraren kontra. Talde bizkaitarra laugarren zegoen sailkapenean, eta etxekoak bosgarren. Igoera fasea sailkapenean lehenengo lau taldeek jokatu dute, hortaz, partidua irabaztea oso garrantzitsua zen.

Oso partidu parekatua izan zen, eta Eurotaller taldeak ez zituen ez, gauzak erraz ipini. Ezin esan joko ona izan zenik, bi taldeek errespetuz jokatu zuten-eta. Lehenengo laurdenean etxekoak ez ziren defentsan bat ere fin ibili, baina erasoan asmatu egiten zuten.

Bigarren laurdenean gauzak aldrebestu egin ziren. Defentsan

ondo, baina erasoan ezin. Astenaldira berdinketarekin erretiratu ziren (41-41), eta hirugarren laurdenean ere gauzak ez ziren larregi aldatu. Laugarren laurdenean izan zen erabakigarria. Jon Basurko ez zen fin ibili jokatu baten, eta epaileak tekniko adierazi zion. Horri esker, bi taldeek alde eskuratu zuten, eta amaiera arte alde horri eutsi izan zen euren lana. Azkenean, 69 eta 78 galdu zuen Kenci Arrasatek.

LOIOLA INDAUTXU: AZKEN AUKERA

Arrasatearrek aukera bakarra izango dute igoera fasea jokatzeko. Hurrengo partidua Loiola Indautxu taldearen kontra jokatu dute, eta partidua irabazteaz gain, beste taldeetara egingo dutenaren zain geratu beharko dira.

Partidua kanpoan jokatu dute, baina badirudi Loiola Indautxu taldeak partidua irabazteaz eskatu duela, hortaz Arrasateko jokalariek partidua behar bezala prestatzeko denbora izango dute. Mailaz igotzeko fasea jokatu gero, astero motibazio handiagoa izango dute etxeko jokalariek. Eta mailaz jaisteko fasea jokatu gero berriz, gauzak bestelakoak izango dira.

ZALDIBARARETOFUTBOLA



EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Lasagabaster	6-3
Maldifas - Makanaki	4-3
Txotx - Iriztu taberna	2-5
Goma2 - Usotz Potroak	6-5
Estu Ta Larri - Bikain Akad	5-8
Fragel Gol - Chapime Dribling	3-6
Bazar Toki On - Rayo Aldeano	4-4
Saukelu - Scream	2-5

B MULTZOA

Irati STS - AKTA	12-1
EGD - Etxinai	6-2
IKP - Azkena You Know!	1-11
DDK - Full Duplex	3-3
AT Celaya - Abocajarro	8-1
Bin Laden - KJ Basati	1-3
AC Surcos - Etxerat	4-5

PARTIDUAK

AZAROAK 10, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: AKTA - Azkena YK. Fraguel Gol
10:00: Fraguel Gol - Aurrera Bol. AzkenaYK
11:00: KJ Basati - AT Celaya. Aurrera Bolie
12:00: K. Alpargat - Etxerat. KJ Basati
13:00: Irati STS - Etxinai. K. Alpargat
14:00: Bazar T.O - Saukelu Scream. Irati
15:00: Betrayer - Makanaki. Saukelu.S
16:00: IKP - Abocajarro. Makanaki
17:00: Usotz.P - Maldifas. IKP
18:00: Lasagabaster - Iriztu tab. Maldifas
19:00: EGD - Full Duplex. Lasagabaster

AZAROAK 11, DOMEKA

09:50: Estu Ta Larri - Rayo Aldeno. Goma2
11:00: Goma2 - Chap. Dribling. Estu Ta Lar
12:00: Bikain Akad - Txotx. Chapime Drib
13:00: Bin Laden - AC Surcos. Bikain Akad

Atsedena: DDK.

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Bikain Akademia	6	3
2. Goma 2	6	3
3. Chap Dribling	6	3
4. Iriztu Taberna	5	3
5. Betrayer	4	2
6. Aurrera Bolie	3	3
7. Usotz Potroak	3	3
8. Estu Ta Larri	3	3
9. Lasagabaster	2	3
10. Rayo Aldeano	2	3
11. Makanaki	2	3
12. Maldifas	2	2
13. Saukelu Scream	1	3
14. Bazar Toki On	1	3
15. Txotx	0	3
16. Fragel Gol	0	3

B MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	6	3
2. Azkena YK	6	3
3. DDK	5	3
4. Irati STS	4	2
5. AT Celaya	4	3
6. Komando Alpargat	4	2
7. AC Surcos	2	2
8. EGD	2	3
9. Osama Bin Laden	2	3
10. KJ Basati	2	2
11. AKTA	2	3
12. Full Duplex	1	3
13. Etxinai	0	3
14. Abocajarro	0	3
15. IKP	0	2

HOBE LASAIAGO

NORGEHIAGOKA BEROA

Joan den astean, partidu ikusgarria jokatu zuten Osama Bin Laden eta Koka Junior Basati taldeek. Hala ere, jokoa hainbat momentutan gogorra izan zen, eta batek baino gehiagok bero-bero amaitu zuen partidua. Hori dela eta, bi taldeei lasaiago ibiltzeko gomendatu gura diete antolatzaileek. Zorionak epaileari, lan zaila izan zuen-eta.

PARTIDU INTERESGARRIA

Oraingo asteburuan, hainbat partidu interesgarri jokatu dira. Etxerat eta Komando Alpargat taldeek zapatuan jokatu dute, eta baliteke partidua baino zerbait gehiago izatea jokoan. Eta domeka goizean, Goma2 eta Chapime Dribling izango dira aurrez aurre. Bi taldeak A multzoko goiko postuetan daude, hortaz, badago zerbait jokoan.

GORA ETA BEHERA

IRATI STS ETA AZKENA YOU KNOW

Zaldibarko bi talde veterano hauek aurreko postuetan izango dira, eta joan den asteburuan lortutako emaitzak dira horren erakusle. Irati STS taldeak 12 gol egin zizkion AKTA-ri, eta Azkena YK taldeak 11 IKP-ri.

IKP, AKTA ETA ABOCAJARRO

Ezin daiteke esan hiru talde hauek ondo hasi dutenik Zaldibarko Txapelketa. Oraingo asteburuan, jipoi ederra jaso dute hiru taldeek, eta sailkapeneko azken postuetan daude. Eskerrak oraindik puntu dezente dagoen jokoan.

Beloki eta Unanue Lau t'erdiko final-laurdenean bihar Uarkapen

XABIER URZELAI

Eguaztenean, biharko pilota jaialdiko bi protagonistak Arrasaten izan ziren partidurako pilotak aukeratzeko. Biek hala biek pilota azkar bana eta pilota astun bana aukeratu zuten, baina Unanuerenak biak ere astunagoak ziren. Zapatuan, Uarkape bete egingo da, partiduak merezi du-eta.

Lau t'erdian txapelaldun izatea zer den dakiten bi pilotari izango dira aurrez aurre bihar. Hasiera baten Beloki faboritua bada ere, Unanuek ez dizkio gauzak batere erraz jarriko. "Beloki atzean jokatzeko ahaleginduko da, eta ni, berriz, aurrean jokatzeko ahaleginduko naiz, hori komeni zait-eta".

Ruben Belokik ere ez du uste partidu erraza izango denik, Unanuek sekulako indarrak jotzen dio-eta pilotari. "Unanuek boleaz sartzen ahaleginduko da, eta pilota azpitik jokatu beharko dut. Horrez gain, sakeaz min egiten ahaleginduko naiz".

Bi pilotariak pozik agertu ziren eguaztenean aukeratutako materialarekin. Belokik 105,4 eta 106,6 gramoko pilotak aukeratu zituen, eta Mikel Unanuek



Bi pilotariak Uarkapen izan ziren eguaztenean pilota aukeraketa egiten.

XABIER URZELAI

106,3 eta 104,8 gramoko pilotak.

HIRU NORGEHIAGOKA

Hala ere, zapatuko pilota jaialdian, final-laurdenaz gain, beste bi partidu ere jokatu dira.

Lehenik eta behin, Olaizola eta Otxandorenak Koka eta Errastiren aurka jokatu dute. Gero, partidu nagusia izango da, eta azkenik, bigarren mailako pilotariak izango dira.

Beloki II.ak eta Bengoetxea V.ak Saralegi eta Galartza VI.aren kontra jokatu dute.

Argi dago bihar Uarkapeko pilotalekua bete-beteta egongo dela. Lau t'erdiko final-laurden bat ez da egunero ikusten, eta horrez gain, izango diren pilotariak ere punta-puntakoak dira. Pilota jaialdia arratsaldeko bost eta erdietan hasiko da.

Arrasate Atletikoko atleta gazteak Elgoibarren izango dira domekan

XABIER URZELAI

Arrasateko atleta gazteak Elgoibarko probetan izango dira oraingo asteburuan. Arrasateko infantil mailan bi talde izango ditu. Horrez gain, Gipuzkoako Txapelketarako sailkatzeko probak jokatu dira domekan.

Joan den asteburuan, Arrasateko atletek hainbat txapelketatan parte hartu zuten. Anoetan kade-te mailakoek pertika-jauzi proba izan zuten, eta Iñaki Viteri bigarrena izan zen, 2,60 metroko jauziarekin. Hirugarrena Ibai

Irastortza izan zen, 2,40 metroko jauziarekin. Altuera-jauzian, aldiz, 16 urteko Iñigo Zabala gazteak 1,50 metroko jauzia egin zuen.

Zapatu arratsaldean, Lasarten egindako probetan, Ander Trojaola lehena izan zen 80 metroetako hesi-lasterketan, eta Ander Pérez de Arenaza bigarren iritsi zen helmugara. Altuera-jauzian Lander Errasti izan zen lehena, 1,38 metroko jauziarekin.

Laudioko krosean Markel Blanco zazpigarren izan zen, eta Donostiako krosean Maria Jose

Gil atleta veteranoa hamargarren izan zen.

DONOSTIAKO MARATOIA

Joan den asteburuan, Donostiako maratonia jokatu zen, eta Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak marka polita egin zuen. Irabazlea Samson Kandie kenyarra izan zen, bi ordu eta hamar minutu behar izan zituen; atleta arrasatearrak 30 minutu gehiago behar izan zituen 42 kilometroak egiteko.

Arrasatearrak bi ordu eta 42 minutu behar izan zituen, eta 56. iritsi zen helmugara.

PERKUSIO IKASTAROAK:

Lekua: Gazteluondoko aretoan

Noiz: Astelehenero

Ordutegia: 18:00etatik 20:30era

Prezioa: 3.500 Pta / 21 ?

Informazioa eta izena ematea:

Gazte Bulegoan edo

943 79 80 25 telefono zenbakian (Inaki)



PERKUSIO AFRIKARRA:

Irakaslea: Pedro Martínez

Egunak: Abenduaren 10ean eta 17an eta urtarrilaren 7an, 14an eta 21ean.

Mandingo tradizioaren erritmoak (Mali, Senegal...)

LATIN PERKUSIO (salsa):

Irakaslea: Iñaki Bruña

Egunak: Urtarrila 28an eta otsailaren 4an, 11n, 18an eta 25ean. Son, rumba, merengea, afrokubaterra...



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila

IX. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketak Amaia antzokia berrestreinatuko du

IKER BARANDIARAN

Nazioarteko Akordeoi Lehiaketak bederatzigarren edizioa izango du abenduaren 5etik 9ra artean, biak barne, Arrasateko Amaia antzokian. Eta horrela, antzoki eraberritua estreinatuko dute.

Aurreko urteetan moduan, Euskal Herriko Akordeoilarien Elkarteak, Hauspoz-ek, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren bederatzigarren aldia antolatuko du. Joan den astelehenean aurkeztu zuen Donostian eta egueanean Mondragoen. Nazioarteko lehiaketa ospetsu hori eta, aldi berean, Gipuzkoako Lehiaketa bera ere abenduaren 5etik 8ra artean -biak barne- jokatu dira Arrasateko Amaia antzokian.

Euskal Herriko Akordeoilarien Elkartearen partaide eta ekitaldiaren beraren antolatzaile Amaia Lizasok argitu zuenez, aurtengo nazioarteko lehiaketan hamabi artista batuko dira, "bisa arazoengatik inork kale egiten ez badu". Berez, akordeoilari gehienak Europako ekialdetik etortzen dira: Errusiatik, Ukrainatik, Moldaviatik edo Italiatik. Ezin ahaztu, gainera, antolatzaileek azaldutakoaren arabera, askorendako Arrasateraino etortzea esfortzu ekonomiko handia dela, eta kasu batzuetan, esaterako, hiru egun autobusez bidaiatzen igaro behar izaten dutela.

EUSKALDUN ETA NESKA GEHIAGO

Aurtengo berritasun gisa, gainera, Moldavia eta Baritik (Italiatik) ere etorriko dira lau artista. Horrez gain, parte hartzaile gehienak mutilak badira ere, aurtentzen, hiru emakume lehiatuko dira, eta horietako bat Iruneko Edurne García izango da; parte hartzaile gaztetxoenetako bat da, gainera. "Emakume kopurua poliki haziz doa eta hori oso garrantzitsua da. Era berean, euskaldunok geroago eta txoko handiagoa egiten ari gara eta oso aipagarria da nazioarteko proportzioan, Euskal Herria oso txikia da-eta", azpimarratu zuen Amaia Lizasok.

Arrasatearrok lehiaketa hau etxean egitea ohituta gauden arren, oihartzun handiko txapelketa dugu. Hala argitu zituzten antolatzaileek: "Europar izen handia dauka eta oso errespetagarria da. Nazioarteko txapelketen zirkuitu bat dago eta urteko azkena Arrasatekoa da. Horren ondorioz, hona hoberen prestatuta daudenak etortzen dira.

Lehiaketako epaimahaia ere ospe handiko artistek osatzen dute. Hauek izango dira epaimahaikideak: Moskuko Gnsim akademiako irakasle Friedrich Lips; Kragujevac (Jugoslavia) eskolako irakasle Vajin Vaso-



Artem Kouznetsov eta Aida Ginullin irabazleak irudian.

ARTXIBOA

"Euskaldunok geroago eta txoko handiagoa egiten ari gara nazioarteko lehiaketetan"

vich; Osloko irakasle Jon Fauktad; Parisko kontserbatorioko Max Bonnay; eta Iñaki Alberdi euskalduna. Akordeoiaren gainean, punta-puntako adituak, hain zuzen.

Hauspoz elkarteak bederatziru urte daramatza Arrasaten lehiaketa ospetsu hori antolatzen. Izan ere, lehenengo urteetan elkarteak beste izen bat zeukan, Gipuzkoako Akordeoi Konfederakundea, hain zuzen ere; eta gero, orain duen deitura jarri zioten. Hala ere, oso jende antzekoa ibili da betidanik lan horretan. Antolatze lanean lau lagun aritzen badira ere, lehiaketak irauten duen bitartean jende mordo ibili behar izaten da hainbat lan egiten. Horien artean, nabarmendugura izan zuten hainbat erakundek eskaintzen dieten laguntza, horien artean, Arrasateko Udalak, "eta zelan ez, SUDC erakundeak; eurei esker egunero jan eta afaldu ederto egiten dugu, eta eskaintzen diguten laguntza guztia ezin ordainduko da",

"Nazioarteko zirkuituko azken lehiaketa denez, oso prestatuta etortzen dira artistak"

azpimarratu zuten.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Baina nazioarteko txapelketaz gain, eta hori garrantzitsuena bada ere, beste ekitaldi batzuk ere antolatu izan dituzte egun horietarako. Gipuzkoako Lehiaketa izena badu ere, egun horietan Espainiako Estatuko akordeoilariak ere lehiatzen izango dira. Lehiaketaren hogeita bigarren aldia izango da, baina azkenak baino ez dira Arrasaten. Hogeita bost artistak parte hartuko dute, gehienak Euskal Herrikoak, baina baita Valladolid eta Zaragozako batzuek ere. "Zenbait euskaldunek eskolak ematera kanpora jotzen dute, eta haien fruituak agerian daude".

Lehiaketa horiez gain, hiru-rehun gaztetxoren XIV. Gipuzkoako Jaialdia, gauetako kafe-kontzertuak (bata, Kajoj tabernan eta bestea, Mondragon Hotelean), eta iazko nazioarteko irabazlearen emanaldia San Juan Bautistan.

KULTURAPILULAK

Udal kultura programazioa gogor hasiko da, Amaia antzokiak ateak zabaltu bezain laster

Amaia antzokia zabaltzearekin batera, Udaleko Kultura Sailak antzokirako programazioa aurkeztu du. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa ospetsuaz gain, abenduaren 15ean eta 16an, *Katiuska* zartzuela ikusi eta entzuteko aukera izango da. Horrez gain, Junkerak kontzertua emango du abenduaren 23an, eta Arrasateko Musikalek bi kontzertu emango ditu: Gabonetako kontzertua abenduaren 21ean eta Gabon zaharreko kontzertua. Urtarrila hasten duenak, 6an, Takolo, Pirritx eta Porrotx izango dira.

Al Andalus-en Musakolako egoitzaren bosgarren urteurrena ospatuko dute bihar

Al Andalus elkartearen arduradunek, Musakolan duten egoitzaren bosgarren urteurrena ospatzeko, zenbait ekitaldi antolatu dituzte biharko. Ekitaldiak 13:30ean hasiko dira: Kordobako La Rambla herriko zeramika erakusketa zabalduko du La Ramblako elkarteak. La Ramblakoez eta arrasatearrez gain, Euskal Herriko elkarte andaluziarreko ordezkariak herri bazkaria izango dute, eta arratsaldeko 19:00etan, elkarte talde batek emanaldia egingo du. Gaueko 23:00etan, berriz, Flamenko Txapelketa egingo da.

Herrian bizi diren nafarrek euren patrioiaren eguna ospatuko dute bihar

Arrasaten bizi diren nafarrek hitzordu polita dute bihar. San Franzisko Xabier patrioiaren eguna dela-eta, egitarau borobila osatu dute. Goizeko 11:30ean, Voces Navarras jota taldeari ongietorri egingo diote. Gero, 12:00etan, San Juan Bautista parrokiaren emanaldia egingo dute, jota eta guzti. Eguerdian, 13:15ean, berriz, Voces Navarras taldeak emankizuna egingo du herriko plazan, eta Lodosoko piperrak eta ardo nafarra dastatzeko aukera egongo da. Ondoren, Musakola Hostalean bazkaria izango dute.



Giro polita izan zuten Corazon de Encina elkartearen asteburu osoan.

Corazon de Encina elkarteak ekitaldi ugari egin zituen

IKER BARANDIARAN

Corazon de Encina elkarte extremadurarreko partaideek egoitzaren hamaikagarren urteurrena ospatu zuten joan den asteburuan. Bazkariak, jokoak, karaokeak, musika... denetik izan zuten.

Corazon de Encina elkarte extremadurarreko partaideek ez zuten egoitzaren hamaikagarren urteurrena edonola ospatu. Egubakoitz arratsaldean hasi ziren ekitaldiak. Horretarako, elkarte talde gazteak gaztetxoendako herri jokoak, eta idazketa eta marrazki lehiaketak antolatu

zituen. Eta iluntzean, playboi lehiaketa izan zuten, drag garaipen batek girotua. Elkarteak dastatzen, parte hartze polita izan zuten, eta jaiak goizaldera irauten zuten.

Zapatuan, eguerdian, Extremadurako ardoarekin ohorezko topa egin zuten, eta bazkal aurtenetik, elkartearen historia batzuen bideoen proiektzioa izan zuten pantaila erraldoian. Lagun inguruk garbantzuzko dastatu zituzten; eta arratsaldean, elkarte koruaren eta dastatze taldearen eta Tarama talde rumberoaren emankizunak izan ziren. Bukatzeko, Lau Alai taldeak girotu zuen gaua.

E, TXO!

GAZTEKONTUAK / 'PLAYSTATION'AK GURE ARTEAN

Kontsolen eta urruneko aginteen arteko lehia, eguneroko ogia

IKER BARANDIARAN


Urte eta belaunaldi desberdinen arabera, gazteen zaletasunak aldatuz doaz. Egun, gazteriak gogokoen duen zaletasunetako bat PlayStation-a da. Telebistara entxufatu eta sasoiko jokoez gozatzea.

Badirudi PlayStation-ak gazte askoren aisialdiaren jaun eta jabé egin direla, horiekin jolasten igaritzen dute-eta ahal duten denbora luzeena. Denborak aldatu dira, jakina, eta kaleetan ez ei da ia jolasten, etxe edo lokaletan baizik.

90EKO HAMARKADA BUKAERATIK PlayStation-ak 90eko hamarkada bukaeran hasi ziren hemen ikus-

PlayStation 2-ak musika, jokoak eta DVDA ditu barne, baina 50.000 pezeta balio dezake

ten, eta izugarri ugalduta horien erabilera. Arrasaten eskuragai daude saltoki askotan. Izan ere, PlayStation-1 deritzona hoge mila pezeta inguruan erosteko aukera dago. Horren bitartez, telebistako bafleekin musika entzun edo jokoeekin jolas daitezke. Besterekin, PlayStation 2-



IKER BARANDIARAN

PlayStation-ak barra-barra aurki daitezke Arrasateko etxeetan.

arekin, aurrekoak dituen erabileretz gain, DVD formatuko filmak ere ikus daitezke. Aditu batzuen

esanetan, PlayStation-a ez da gaztekoenendako joko aproposena, bortitza eta konplikatu delako.

LOTSABARIK / Iago Cascón

"Neskak itxiagoak direla uste dut"

IKER BARANDIARAN

Iago buru-belarri dabil gazte-txean, beste gazte askoren moduan. Dituen zaletasunen gainean galdetxean, ezin izan ditu denak zenbatu: komikiak, zinema, gaztetxea, irakurtzea, eskiatzea, lagunekin egon...

• **Txikitán, zer izan gura zenuen?**

Hegazkin pilotua. Hegazkinak asko gustatzen zaizkit, behin ibili banaiz ere. Baina gaztetxotán, hegazkinen maketa mordoan neukan, baita liburuak ere.

• **Zelan ikusten duzu zure burua hemendik 20 urtera?**

Sabel handiarekin, dagoene-

ko badaukat-eta; gero eta ardien antz handiagoa hartzen... Gura-ko nuke hala ez izatea.

• **Zein da, zure ustez, adin ideala?**

Hemeretzi urte, nire edadea.

• **Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**

Pertsonen arteko harremanei.

• **Zerk ematen dizu lotsa?**

Oso gauza gutxi ematen didate lotsa; baina hainbat gauzera gero damutu egiten naiz.

• **Eta zerk arduratzen zaitu gehien?**

Arlo pertsonalean hainbat gauzak, baina orokorrean Euskal Herriaren egoerak.

• **Zer falta zaio Arrasateri gaz-**

teendako?

Zinema aretoak eta film eskaintza hobekak.

• **Zer egingo zenuke milioi bat pezetarekin?**

Disko mordoan erosiko nuke.

• **Zure gorputzeko atalik gustukoena?**

Besoak.

• **Arrasaten erraz ligatzen da?**

Ez. Nire adineko jendearen artean, behintzat, lagun taldeak neska edo mutilenak dira, horrek zaildu egiten du. Neskak itxiagoak direla uste dut.

• **Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?**

Batzuetan gorputzari, baina gero zer-nolakoa den ikusten dut, jakina.



ADINA: 19 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoa. Eta orain, LHko goi modulua • **ZALETASUNAK:** Musika, eskiatzea, irakurtzea, zinema eta gaztetxea. **LIBURU BAT:** *Cien años de soledad* • **FILM BAT:** *Blade Runner* • **MUSIKA TALDEA:** Anger eta Glassjaw • **KIROL TALDEA:** Bat ere ez.

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711767

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

BEHEKODENDATIK

Paco González

OKENDO KIROLAK DENDAKUE

XABIER URZELAI

Paco Gonzálezek Eteon ikasi euen. Enpresa-zientzietan diplomaue, gaur egun, Okendo kirol dendako arduradune da, eta gaiñera, Amuebladora Mondragonesako kontabilidadi be erueten dau, hortaz, lanik ez jako falta. Bi seme-alaba eta emaztie eukittiez gain, sekulako katarrue be badauko.

Amets bat?

Danok zorionsuek izetie.

Amets txar bat?

Esandakuaren kontrakue.

Egin dozun azken biajie?

Mexikora, oin dala bi urte.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei, duda barik.

Eta gorrixen?

Politikuen nagusixei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

El cazador / El diario de Bridget Jones / Supertramp.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai, baiñe kondiziño batzuekin.

Eta prostituziñue?

Duda barik.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Bat bera be ez dot egitten, baiñe aukeran, tabernetako txikiteue.

Ze gústetan jatzu Mondragoetik?

Urbanistikoki zela dabillen geraketan.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Biher dan moduko peatonalizaziñue egingo neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Komertzio txikiñei lagundu, denda haundi larregi dago-eta.

Ze pentsau jatzu ARRASATE PRESS barrixe?

Eduki aldetik osotuague dago, baiñe inpersonalague da, eta ez da bestie bezain politte.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Emaztie.

Eta ezagutu nahiko zeunkena?

Danongan eragiñe daukon per-



"Lehendakarixe izengo banitz, ahalegindduko nitzake komertzio txikiñei lagunketan"

tsonaren bat ezaguketie gustauko litxakit: Koffi Annan, adibidez.

Dendako arduradun izengo ez bazitze, ze izengo zitzake?

Historiako irakasle.

Gustoko kirol marka bat?

Mitto, beste batzuen artien.

Zeuk egitten dozu kirolik?

Bai, oin eski denboraldixe hasiko da, eta horretan jarriko naz buru-belarri. Bestela, futbola, tenisa, gimnasio apur bat...

Lanien ze da gehixen gustetan jatzuna?

Gehixenbat, jentiekin tratue eukittie.

Eta gutxien gustetan jatzuna?

Bezeroren baten arazue kon-

"Txarrena da bezero batek arazo bat eukittie, eta zuk konponbiderik ezin emutie"

ponketako aukerarik ez izetie.

Zapatak ala zapatillak?

Neuretako, zapatak.

Horren kirolzalie gara mondragoetarrok, dagozen kirol denda danak egoteko?

Mondragoeko jentiek kirol asko egitten dau, baiñe gaiñera, kalien ibiltteko jentiek kirol erropak ibiltten dittu.

Zergatik moda hori?

Oso erropa komoduue dalako. Euskadin jentiek asko ibiltten dau erropa klase hori.

Urtarrilletik aurrera, zenbat euro balixoko daue denda honetako zapatilla garestixenek?

100 bat euro-edo.

NIREBIDAIAHURA/ Egoitz Zubizarreta

Yosemite (Kalifornia) / 2001eko maiatzean

Egoitz abentura bat bizitzeko asmoarekin abiatu zen Kaliforniara, eta abenturarekin batera hainbat helburu betetzeko intentzioz joan zen. Estatu Batuetara Bergarako lagun batekin joan zen, eta biek ere amets berbera zeukaten, Yosemiteko parkean dagoen Gran Capitan horman eskalatzea, hain zuzen.

Yosemite parkean, gehienez, astebete egon zaitezke, baina Egoitz bi hilabete eta erdian izan zen han. "Izen faltuak ematen genituen, eta ordaindu beharrekoa ordaindu eta behar den bezala egonez gero, hango *rangere* ez dizute oztoporik jartzen, nahiz eta jakin denboratxo daramazula han". Bergarako laguna hilabete izan zen Egoitzekin, baina Egoitzek lagun mordoa egin zuen han, eta ez zuen inongo arazorik izan beste hilabete eta erdi geratzeko. "Hantxe leku guztietako jendearrekin elkartzen zara, eta berehala aurkitzen duzu eskalatzeko laguna".

Egoitzek hainbat bia egin zituen Bergarako lagunarekin, baina Mescalito izeneko bia luzea bertan ezagututako lagun amerikar batekin egin zuen. "Benetan ondo konpondu nintzen harekin. Sei egun izan ginen horman, eta nire adin berbera izateaz gain, biok ere ingeniari teknikoak gara. Gauza asko genituen batera, eta ondo moldatu ginen".

Horma baten hainbat egunez zintzilik egotean sentsazio esplika ezinak bizitzen dira. "Hango lasaitasuna harrigarria da, behera begiratu eta gauzak zelandozen ikusten duzu. Egund osoan lanean diharduzu: eskalatu, lo egiteko guztia gertatu, dena jaso eta berriz gora". Kirol honek ere, gauza guztiek bezala, badauzka arriskuak. "Kirol hau eginez naiz zorionsu. Beti egin nahi izan dudun zerbait da, eta horrek ez dauka beste bueltarik. Hala ere, etxeokoe batzuetan sufritu egiten dute".

XABIER URZELAI



Egoitz Zuazubiskar Gran Capitaneko bia batetan.

"Horman sentitzen duzun guztia ez da beste inon sentitzen"

"Horma igo aurretik, guztia oso ondo prestatu behar da"

GANBARA

Arte eta enmarkazioak

Jaiotzerako figurak salgai.

Margolanak.

Laminak.

Aintzinako bitxikeriak.

Berriztatzeak.

Erguin 2 behea.
Tel.: 943 7712 37 / 657 79 95 47

Udalatx
InmobiliariaSail eta etxebizitzaren
salmenta
Eskoriatzan

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behea-etz.
ARRASATE



BERGARA
Belen Mujika
Abenduaren 4an 25 urte.
Zorionak, Txatxilkoen partetik!



ARRASATE
Itziar Bartolome
Abenduaren 4an 28 urte.
Zorionak, Txatxilkoen partetik!



ARRASATE
Maria Aranburu
Abenduaren 6an 5 urte.
Umezaintzako laguntxoen partetik, zorionak!




ARRASATE
Gorka Llodio
Abenduaren 3an 6 urte.
Zorionak, familikoen partetik!



ARRASATE
Lide Zubiaga
Azaroaren 30ean 6 urte.
Zorionak, familikoen partetik!



ARAMAIO
Ane Gardoki
Abenduaren 1ean 2 urte.
Zorionak eta mila muxu! Amaiur eta Ainhoa.



ARRASATE
Javier Castillo
Abenduaren 3an urtebetetzea. Zorionak, gazte! Etxekoak.



ARRASATE
Xabier Zabala
Abenduaren 3an 10 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Familiakoak.



ARRASATE
Aitor Madinabeitia
Abenduaren 2an 2 urte.
Zorionak, Aitor! Etxekoak.



ARRASATE
Kepa Gruzeta
Azaroaren 24an 10 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Elena.



ARRASATE
Goizane Atxaga
Abenduaren 5ean 22 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Lehengusuak.



ARRASATE
Iñaki Larrañaga
Azaroaren 28an urteak.
Zorionak, Zazpiak taldearen partetik. Muxuak.



ARRASATE
Gorka Bergaretxe
Azaroaren 29an 22 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



GASTEIZ
Elene Balanzategi
Azaroaren 28an 4 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Etxaluzekoen partetik.



ARRASATE
Karmen Arrieta
Azaroaren 27an 78 urte.
Zorionak eta urte askotarako. Etxekoen partetik.



ARRASATE
Gorka eta Gari
Azaroaren 28 eta 29an urteak. Zorionak, Zazpiak taldearen partetik. Muxuak.

BABESLEA

Juan Manuel Berrueta

ARGAZKILARIA


- Estudioa
- Erreportajeak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa



Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18.




Adi!

Hurrengo zenbakian, **abenduaren 6tik 14era** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzera arte jasoko dira ARRASATE PRESSEko egoitzan.**



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 30a / 6. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorlora Lizentziaduna, z/g 2500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Datorren urteko zergak %3 igoko dira, KPIren igoeraren antzera

UBANE MADERA

Osoko bilkura izan zen eguaztenean Aramaion. Gai ugari landu zituen udalbatzarrek, tartean, datorren urteko udal ordenantzetan zerga, tasa eta herri prezioen igoera. %3 igotzea zen proposamena, eta horixe onartu zuten, KPIren igoerarekin bat eginez, gutxi gorabehera.

Zerga igoera hori apenas igarriko da zenbait gaitan. Esaterako, etxerako ura pezeta bat gares-

tiago izango da datorren urtean; horrela, 20m³raino 37 pezeta ordaindu beharko da. Nekazaritzarako ura, berriz, bi pezeta garestiagoa izango da, 54 pezeta 20m³raino (Azkoaga, Zabola, Untzilla, Suña eta Induspen %15eko beherapena izango dute). Estolderiagatik bi hilean behin 451 pezeta ordaindu beharko dira, eta saneamendurik ez duten etxebizitzetan dagoen hobi bakoitzeko, 1.676 pezeta.

Zaborrari dagokionez, Ibarako etxebizitzek 612 pezeta ordainduko dituzte, auzoetakoek,

berriz, 501; eta saltokiek, 1.115 pezeta.

Eta argindarrari dagokionez, udal argiketariaren joan-etorriengatik 1.697 pezeta ordaindu beharko dira, eta kopuru bera lan egiten duen ordu bakoitzeko.

Bestalde, kanposantuaren kopurua 19.145 pezetan geratuko da, eta ibilgailuei dagokienez, betiko moduan sei sailkapen egiten dira: auto txikiak, autobusak, kamioiak, traktoreak, atoiak eta gainerakoak. Auto txikietan, zortzi zaldi fiskaletik beherakotetan, 2.678 pezeta ezarri dituzte zerga moduan; 21 eta 50 lagunendako lekua duten autobusetan, 25.166 pezeta; 1.000 kiloko zama erabilgarria duten kamioietan, 8.970 pezeta; 16 zaldi baino gutxiagoko traktoreetan, 3.748 pezeta; 750 kilo baino gehiago eta 1.000 baino gutxiagoko zama duten atoietan, 3.748 pezeta, eta gainerako ibilgailuetan, ziklotoreetan, adibidez, 938 pezeta.

Kiroldegian, jokalekua 2-4 lagunek erabiltzearen, bakoitzak 500 pezeta ordaindu beharko ditu, futbolerako eta bestelakoetarako 700 pezeta bakoitzak, eta dutxak erabiltzearen, 200 pezeta. Udalerrian erroldatuta egon ezean, zerbitzu guztiak garestiagoak izango dira.



UBANE MADERA

Ura pezeta bat igoko da Ibaran, eta nekazaritzarako ura, bi pezeta.



Laster 200 bat ale banatuko dira


Joan den astean, *Goienkaria* eta TXIRRITOLA banatzeko sistema berria estreinatu zuten Aramaioko auzoetan. Joseba Espinosa gaiteztarrak ogiarekin batera banatzen du aldizkaria zapatu goizetan. Altxaga, Etxaguen, Arriola, Arexola, Gureia, Uribarri, Zabola, Azkoaga, Barajuen, Untzilla eta Suña da Josebak egiten duen ibilbidea. Hortaz, auzo horietako baten bizi denak hari eskatu beharko dio TXIRRITOLA. Josebak urte eta erdi daroa inguru hartan ogia banatzen, eta adierazi du jende dezente eskatu diola aldizkaria, baina haren ustez, jende gehiagok eskatuko dio.

ATREBENTZIAEZPADA/ Zure ustez, Gabonak asko aurreratzen dira?



MARIA NAFARRATE
Ikaslea

Akaso lasterregi etortzen dira, baina niretako ondo dago Gabon giroa lehenago ipintzea. Nire ustez, polita geratzen dira kaleak argiekin...




JABIER GARDOKI
Langilea

Ni konforme nago orain dauden moduan. Nire ustez, dagokienez etortzen dira Gabonak, bere denboran. Niri gustatzen zaizkit, ondo dago.



JABIER UNTZUETA
Erretiratua

Bere garaian datozela uste dut, konforme nago dagoenetan. Gainera, Gabonetan egoten den ohiko giroa gustatzen zait.



FAUSTINO LOITI
Langilea

Nire ustez, antzina baino lehenago etortzen dira Gabonak, baina niri ondo iruditzen zait, beti gustatu izan zait eta Gabonetako giroa.



LUIS GODOI
Langilea

Nire ustetan, lasterregi hasi dira, abenduaren erdialdean hastearrekin nahikoa izango litzateke. Edozelan ere, ez zait txar-to iruditzen.

LABUR

Gabonetako argiak ipini dituzte oraingo astean

Gabonak hasi dira Aramaiora iristen. Hain justu, oraingo astean, Gabonetako argiak ipintzen jardun dute udal langileek. Eta, aurreko urteetan moduan, aurtengo Gabonetarako asmoa zen Aramaioko hirugarren auzo batendako argiak erostea, eta horrela urtero-urtero auzo guztietako zerbait erostea. Baina aurrekontu murrizketa egon da, hortaz, iaz bezalaxe, aurtengo Ibarra, Arriola eta Azkoaga auzoetan ipiniko dituzte argiak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuriako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

LABUR

ZOKKETAKO SARIAK

Aramaioko Trikitixa Taldearen 2001eko zozketa-ko zerbaki sarituak hauek izan dira. Lau lagunendako afariak:

1.025 zerbakia, Iturrieta sagardotegian; 1.526 zerbakia, Goiko tabernan; 970 zerbakia, Añai erretegia; 1.446 zerbakia, Dukiena jatetxean; 4.027 zerbakia, Iparralde tabernan; eta 3.553 zerbakia, Unzueta jatetxean.

Sariak jasotzeko azkene-ko eguna abenduaren 31 da. Informazio gehiago 945445392 edo 945445205 telefonoetan.

BERTSO AFARIA

Aurreko astean, Gantzaga-ko auzokideen afaria iragarri genuen joan den egubakoitzerako; baina afaria gaur izango da. Iturrieta sagardotegian elkartuko dira Gantzagako auzokideak, 21:30ean, eta Imanol Lazkano eta Har-kaitz Estivalles bertsolariak izango dira giroa berotzen. Eta, jakina, afalosterako, kafe ordurako dei gura diete parranda egin gura duten gainerako herritarrei ere.


KULTURA

Bergarara joan da Argazki Rallyko lehenengo saria. Hirugarrena, berriz, Aramaiora

Bergarara joan zen aurtengo Argazki Rallyaren lehenengo saria (45.000 pezeta), Jose Luis Feoren eskuetara, hain zuzen. Bigarren saria (30.000 pezeta) Joseba Gra-jales gasteiztarrak irabazi zuen. Eta hirugarren saria (20.000 peze-ta) Itsaso López de Bergara aramaiorarrak eskuratu zuen. Bestalde, aramaioar onenaren saria (20.000 pezeta) Enrike Altunak poltsikoratu zuen, eta akzesita (10.000 pezeta) Antonio Ameyu-gorendako izan zen.

Sari banaketaren ondoren, dia-positiben proiektzioa egin zuten kultura etxeko aretoan, eta jende dezente elkartu zen giro politean, batez ere, jende gaztea.

Orain, Argazki Rallyra aur-keztutako argazkiak datorren urteko egutegirako erabiliko dituzte, iaz egin zuten moduan.



HERRIKO JOKOAK

HAIZE ERROTARENA

Zozketa egiten zen nor paratzen zen jakiteko.

Pertsona bat harrapatzen du, hura ukituta. Ukitutako pertso-nak bertan gelditu, beso bat zabal-du eta beste batek ukitu zain egon behar du.

Neskek eta mutilek jokatzeko dute, neguan, gehienbat, baina baita bururatutakoan ere.

Bestalde, aurrekoaren aldaer-a eginez, badago *Stop* izeneko beste jolas bat.

Zozketa bidez neska edo muti-la aukeratzen da. Korrika dabil-tzala, pertsona batek bere burua arriskuan ikustean (norbaitek harrapatuko duela, alegia), beso-ak zabaldu eta *stop* esan dezake. Postura horri eutsiz, libre dago-en beste norbaitek ukitu eta aska-tu arte egon behar du horrela. Hortaz, oso normala izaten zen pertsona bat baino gehiago modu horretan aurkitzea. Pertsonaren batek bi aldiz esaten bazuen *stop*, hura jartzen zen jendea harra-patzen. Aspertzean bukatzen zen jolasa. Negu partean jolasten zen.

Aramaioko joko eta jolasak

BOTE PRONTOAN/ Migel Angel Burgi eta Roberto Aginagalde · Herriko karobiak babesteko lanean

“Aramaioko moduko baserri herri txikietan horrelakoa da daukagun ondarea”

Makinek hainbeste agintzen ez zutenean, gure arbaso-ek karea eskuz egin behar izaten zuten, karobietan. Horieta-ko ugari egon dira eta oraindik ere badaude; baina gehienak oso ego-era kaskarrean. Aramaion ere badi-ra karobiak, eta bi lagunek, Bur-gik eta Robertok, herriko karobiak zelanbait zaintzea erabaki zuten. Dagoeneko urtebete eman dute Goi-koerrota karobia berritzen.

Zenbat karobi dago hemen?

Gu oraindik karobiak zerrenda-tzen ari gara. 20-30 ditugu, baina oraindik ikusi ez ditugun batzuk falta dira, auzo bakoitze-an hiruzpalau daude. Eta lehen egondako beste asko desagertu-ta daude.

Noiztik existitzen dira?

Seguru ez dakigu, baina noiz-bait, paper zaharretan ikusita, esaten da eliza egin zenean eta Udaletxea egin zenean karea erabili zutela. Hortaz, susmoa da ordurako bazeudela. Izan ere, jendeak etxeak egiteko karea behar zuen, eta karea egiteko karobia.

Zergatik karobiak zaintzeko interes hori?

Gu berritzen ari garen karobia berritu dugu oso leku berezian dagoelako: ermita bat, iturri bat, erreka bi... bailara polita eta zabala da eta herriatik oso gertu dagoena, paseoa joateko moduan.

Eta beste arrazoi bat da hemen monumentu handirik ez dagoenez, Aramaioko moduko baserri herri txikietan zubiak,



karobiak, iturriak, errotak-eta berritu behar ditugula, hori da eta guk dugun ondarea.

Zenbat lagun ari zarete lanean? Zertarako?

Berritze lanak bi lagun artean ari gara egiten, orain dela urtebete. Baina laguntza badugu.

Gure lehenengo helburua zen dauden karobien zerrenda egitea, apurka-apurka ez daitezen desagertzen joan. Eta ideia horrekin hasi ginen lanean. Goikoerrota berritzen aritu gara aste bukaeratan.

Etorkizunari begira...?

Informazio gehiago jasoko dugu, eta gero, erakusketa egin gura dugu Gabonetan, 22an. Eta karea egin gura dugu, akaso txondor eta guzti. Jendeari erakusteko.

GORKA

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

LUZAPENAK

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Altzariak • Diseinua • Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 08 07

ERRETRATUZAHARRA

Barrena
baserriko
Altuna familia

Bukatu berri den azaroaren 16a egun tristea izan zen Barrena baserriko Altuna familiaren-dako, egun berean eta ordu gutxiko aldearekin hil ziren-eta Espe Altuna (Gasteizen) eta haren koinatua, Txomin Lete (Oregonen, AEBn).

Espe Altunak 79 urte zeukan. Gerardo Garmendiarekin ezkondu, eta bikoteak hiru alaba eduki zituen: Maria Jesus, Maite eta Silvia. Espe eta Gerardo aski ezagunak ziren Arrasaten, hainbat urte eman zituztelako ostalaritza lanetan. Politena eta Re-Re jatetxeak gobernatu zituzten bere garaian, eta mondragoetar askoren gozamererako, Espek ederki erakutsi zuen sukaldaritzarako zeukan abilezia aparta.

Txomin Lete, berriz, Bergarako Lesarri baserriko semea zen. Haurtzaroa eta gaztaroa Euskal Herrian pasatu eta gero, Amerikako Estatu Batuetara joan ziren bizi izatera, Oregonen dagoen Burns izeneko herrira, hain justu. Txominek eta Mariak hiru seme-alaba ekarri



zituzten mundura: Javier, Amparo eta Jess. Familiak Burnseko Plaza euskal hotelaren ardura izan zuen hainbat urtean. Sarri etortzen ziren Arrasatera oporrak pasatzera, azken aldiz aurtengo abuztuan. Txominen azken bisita izan zen, eta orduan ere, jator eta umoretsu ikusi genuen. 82 urterekin hil zen, orain dela hamabost egun.

Gaurko erretratu zaharrean, Altuna familiak 1977. urtean egindako bazkaria ikusten dugu. Festa itzela antolatu ei zuten egun hartan Barrena baserrian. Argazkian honako lagun hauek ageri dira, zutik, ezkerretik eskumara: Joxe Uribesalgo, Txomin Lete, Aloña Altuna, Javier Lete, Espe Altuna, Jess Lete, Lorea Altuna,

Amparo Altuna eta Angel Gantxegi; makurtuta, ezkerretik eskumara: Luis Gantxegi, Amparo Lete, Josu Altuna eta Maria Altuna.

Argazkia: Jon Andueza
Berriemailea: Jon Andueza
Urtea: 1977. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Mondragoe,
Altamira ez
zegoenean

Kurtze Txikitik ateratako argazkia erakutsi genizuen orain dela aste batzuk.

Argazki honetan Arrasateko ikuspegi orokorra azaltzen da, baina orduko argazkilariek mendira jotzen bazuten argazkia ateratzera, gu autoz iristen gara argazkia aterata dagoen lekuraino, meritu txikia daukagu, hortaz. 1920an, ez zen existitzen Altamira.



± 1920 Arrasateko beste ikuspegi bat. Aramaio-ko erreka ez zegoen estalita, eta Arrasateko auzo gehienak egin barik zeuden.



2001 Lehen basoa zena gaur egun etxe eta kaleak dira auzo bilakatuta. Hurrengo astean, beste ikusipuntu batetik ikusiko dugu Arrasate.

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 20 14

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

IL
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behe
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65



Haizetakoak 1,46 m².

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berriari garrantzitsuena ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilotzea ekiditen du, eta sabaiaren altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobe sortzen dute, erosotasunaren aukera guztietara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/1.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.


ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

EKOMOBIL

Zaldipe auzoa z/g
Tel.: 943 79 50 71
ARRASATE

307 
PEUGEOT



Sofa
leku

Oso
eroso.



grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores
a. eme. sukaldeak
centro hogar mueble
sofa leku

- Tel.: 943 79 15 03
- Tel.: 943 77 14 92
- Tel.: 943 71 10 12
- Tel.: 943 77 14 92

www.grupo-aeme.com

grupoam@grupo-aeme.com